

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## 2020-2023 eperako telekomunikazioetako urte anitzetako kontratua onartu da, urte betez luzatzeko aukerarekin

*Foru Erkidegoko Administrazioa telefonia finkoa, mugikorra eta datuen transmisioaz hornitzea da helburua*

Asteazkena, 2019.eko martxoak 27

Nafarroako Gobernuak, gaurko bilkuran eta María José Beaumont Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barne eta Justizia kontseilariak proposatuta, Mikel Sagüés, Informatika, Telekomunikazio eta Berrikuntza Publikoko zuzendari orokorrari baimena eman dio Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioarako 2020-2023 eperako telekomunikazio kontratua sinatzeko. Guztira 8.470.000,00 euroko aurrekontua izango du, BEZ barne, eta urte betez luzatzeko aukera izanen da, 2024. urtera arte, guztira (luzapena kontuan hartuz) 8.750.000,00 euroko, BEZa gabe, balorearekin.

Kontratu honen helburua da Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioa telefonia finkoa, mugikorra eta datuen transmisioarekin hornitzea.

### **Konexio hobea 280 egoitzetan**

Kontratua horri esker Nafarroako Gobernuko 280 egoitza banda zabaleko sareekin lotuko dira, Europako Agenda Digitalak zehaztutako gutxieneko konexio abiaduretara egokituz.